

Abuztuaren 4an
URTEAN ZEHARREKO 18. IGANDEA

Agurra

Biziaren ogia dugun Jesus Maisuaren onginahia eta bakea izan bitez zuekin.

Sarrerako oharpena

Gure fedea ospatzera bildu gara Eukaristian. Fedea, berritasuna da, aske egiten gaituena, gure lasaitasunetik ekintzara eta bizipenera garamatzana. Hori da Ebanjelioaren arabera ondasunak biltzea; ondasun horiek jartzen gaituzte egiazko zorionaren bidean.

Damu-otoitza

Jesus Jaunak hitzaren eta Eukaristiaren mahaira dei egiten digu eta, horretarako, bihotz-berri gaitzela eskatzen. Aitor ditzagun, beraz, geure bekatuak eta eska dezagun uste osoz Jainkoaren errukia.

—Jesus Jauna, Aitagana garamatza**n** bidea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, herri guztiak argitzen dituen egia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, mundua eraberritzen duen bizia: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Zatozkie lagun, Jauna, zeure zerbitzariei
 eta ager iezaiezu beti zeure bihotz ona otoizka ari zaizkizunei;
 eta, egile eta nagusi aitortzen baitzaituzte,
 emaezu bizi berria
 eta zaindu itzazu beti bizi berri horretan.**

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Zertarako jarri gure itxaropena balio ez duten gauzetan. Pertsoneri zor zaien begirunea, Jainkoak gurekin egiten duen ekintza harrigarria eta gizadiaren zoriona eta bizitza duina dira arduratu behar gaituztenak... gainontzekoa axalkeria da.

Lehenengo irakurgaia (Koh 1, 2; 2, 21-23)

Koheleten liburutik

Hutsaren hutsa —dio Predikariak—, hutsaren hutsa; dena huskeria da.

Izan ere badira gizakiak, buruz, egoki eta trebetasunez lan egin ondoren, azkenean ezer egin ez duenari dena utzi beharrean aurkitzen direnak. Hori ere huskeria da eta oker handia. Zer irabazi ateratzen du gizakiak lanaren lanez eta kez karen kez kaz eguzkipean nekatu ondoren? Egunez atsekabeak, nekeak eta oinazeak; eta gauz ere ez du atsedetik haren bihotzak. Hau ere huskeria da.

Erantzun-salmoa (Sal 77, 3-4. 23-24. 25 eta 54)



Zatozte, pozez oihu degiogun Jaunari,
txalo degiogun salbamen dugun Harkaitzari.
Hurbil gakizkion aurrera esker-kantuekin,
jai degiogun txalo eta eresiekin. R/.

Zatozte, ahozpez jaurets dezagun,
egin gaituen Jaunari belaunika gakizkion.
Bera baita gure Jainkoa, '
gu, berriz, Haren larreko herria,
Haren zainpeko artaldea. R/.

Entzungo al duzue gaur Haren mintzoa:
«Ez gogortu zuen bihotzak Meriban bezala,
Masa-egunean basamortuan bezala. '
Zuen gurasoek han zirikatu ninduten,
Nik eginak ikusi arren, tentatu ninduten.» R/.

Bigarren irakurgaia (Kol 3, 1-5. 9-11)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei

Senideok: Kristorekin berpiztu zaretenez gero, zabilzate goi ondasunen bila, han baitago Kristo Jaungoikoaren eskuin aldean jarririk. Irrika itzazue goiko ondasunak, eta ez lurrekoak. Hil baitzarete; eta zuen bizia Kristorekin Jaungoikoarengan ezkutaturik dago. Gure bizia den Kristo agertuko denean, zuek ere agertuko zarete aintzaz Harekin batean.

Hil ezazue, beraz, zeuen gorputzean lurkoi den guztia: haragikeria, lohikeria, grinak, gutzikeria eta sasijainkokeria den diru-gosea. Ez esan elkarri gezurrik. Erantzi zeuen gizaki zaharra bere egiteekin; eta jantzi berria: bere egilearen ereduz, berritzen doana, ezaguera bateraino iritsi arte. Erakunde berri honetan, ez greziarrik, ez judutarrik, ez erdaindurik, ez erdaingaberik, ez arrotzik, ez eszitarrik, ez etxekorik, ez morroirik, baizik eta Kristo da guztien bilduma eta Kristo dago guztietan.

Aleluia (Mt 5, 3)

Zorionekoak, gogoz behartsu direnak;
berena dute-eta zeruetako erreinua. R/.

Ebanjelioa (Lk 12, 13-21)**Homiliarako argibideak**

Jainkoaren aurrean aberats izan

Berdintasun ametsak desegiten ari dira. Gero eta gehiago, aberastasanak pilatzen ari da pribilegiatu talde bat, eta gero eta aberatsagoak dira, eta jenderik gehiena, berriz, gero eta pobregoa. Ahaleginari eta aurrezteari esker zahartzarorako diru apur bat gordetzen ari ziren batzuk ezer gabe geratu dira egun batetik bestera, krisi finantzarioaren ondorioz. **Frustrazio** ikaragarria sentitu dute guztiek (*Koh* 1, 2; 2, 21-23). Justizia eskatu dute denek, arauak ezartzeko hori berriro gerta ez dadin. Nolanahi ere, ez du ematen gauzak asko aldatuko direnik.

Ez dakigu ondo norengana jo. Zoritzarrez, Jesusek berak ez zuen diru kontuetan sartu nahi izan (*Lk* 12, 13-21). Jesusek itxuraz bidegabea zirudien kasu batean esku hartzeari uko egin zion. Seme zaharrena herentzia guztiarekin geratu da. Ezezko horrekin, mundu honetako ondasunak **senide arteko maitasuna** baino

garrantzitsuagoak izatea salatzen du Jesusek. Hori ikusten da, askotan, tartean dirua dagoenean.

Bizitza ondasunen araberakoa dela pentsatzeak eragiten du dena, ondasunekin batek bizitza honetan eta bestean aseguru bat duela pentsatzeak. Sinesmen horrek diru-gosea eragiten du, ondasunak **etorkizuna aseguratzeko** pilatu nahi izatea. Oparo bizi nahi duen gizon aberatsaren parabolak gizakia engainatuta bizi dela erakusten du. Ezin da etorkizuna ondasunekin aseguratu. Gizakiaren bizitza zintzilik dago beti, Jainkoaren mende.

Nola aseguratu bizitza? Jainkoaren aurrean aberats izatea da gakoa, ez ondasunak norberarentzat pilatzea. Senideekiko harremanetatik hasita, harreman pertsonalak zaindu dituen da aberats Jainkoaren aurrean. Hori da benetako aberastasuna, **maitasunaren aberastasuna**, partekatuta txikitzen ez dena, baizik eta elkarrenganako maitasunarekin handitzen dena.

Zoriona gauzak **edukitzean** bilatzea da gaur egungo kulturaren arriskua, diruarekin eros daitezkeen gauzak edukitzean. Kontsumismoak gure ahalegin eta energia guztia eskatzen du, eta esklabo bihurtzen gaitu. Edukitzeko lan egiten dugu. Ez dugu astirik **adiskidetasuna** lantzeko, pertsonekin konpartitzeko. Horrela, gero eta pobreagoa da gizakia. Harreman pertsonala da beti gizakia. Harreman pertsonalak desagertzen direnean eta gauzekiko, tresnekiko erlazioa bakarrik geratzen denean, gauza bihurtzen da gizakia ere.

Goiko gauzak bilatzera deitzen gaitu apostoluak, hain zuzen ere, ez lurreko gauzak (*Kol* 3,1-5.9-11). Goiko gauzak ez daude beste mundu desberdin batean. Gure munduko errealitateak ere badira. Ez dira gauza material galkorrak. Betiko berma duen gauza bakarra maitatu den hori da. Pertsonak dira garrantzitsuenak. Baina benetan

maite izan ditugun gauzek ere, erabili eta botatzeko objektu gisa soilik erabili ez ditugunek, hartu ahalko dute betikotasun zaporea. Tamalez, gutxi dira izaera hori lortzen duten eta bizitza osoan **maitasunez** gordetzen ditugun gauzak

Eukaristian Jesusekin elkartzea da bizi-berme bakarra. Jesusek bezala bizia emanda bakarrik edukiko dugu bizitza oparoa, betiko bizitza.

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egiogun, senideok, Jainko Aitari eta eska diezaiogun entzun ditzala bihotzez egiten dizkiogun otoitzak.

—Frantzisko Aita Santuaren alde, Jose Ignazio gure Gotzainaren alde eta eliz-ardurak dituzten guztien alde: Jaunak bere Hitza zuzen aldarrikatzeko jakinduria eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

—Bere etxetik eta familiarik urruti diren guztien alde, arriskuan bizi diren guztien alde: Jaunak aurrera egiteko behar den kemena eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

—Herri guztietako eta erlijio guztietako gizakien alde: Jaunak bere onginahia agertu eta bere bidetik gida ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

—Gure senide hildakoen alde: Jaunak errukiz onar ditzan betiko, bere santuen artean. Eska diezaiogun Jaunari.

Gauza guztien hasiera eta amaiera zaren Jauna, Zure Seme Kristoren bidez Zure erreinuan parte eman diguzu; egizu, lurrean bizi garen artean ez ditzagula ondasunak maita gauza guztien gaineretik, baizik eta ez dezagula ahaztu Zure seme-alaba izatea dela gure aberastasuna. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zaindu itzazu beti, Jauna,
zeruko dohainez berritu dituzunak;
eta honela indarberritzen gaituzunok
eraman gaitzazu betiko salbamenera.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**